

laister berri

001

OSASUN THARTEL
ELEKTRONIKOA

002

BOLUNTARIOEN EGUNA

003

IPUIN TAILERRA UDAL
BIBLIOTEKAN

004

HITZALDIA

005

XVI. ARCAZKI RALLYA

006

GOIENIZ

010

EKINTZAK

laister berri

OSASUN TXARTEL ELEKTRONIKOA

BERRI EZ AZU ZURE OSASUN-TXARTELA HAINBAT ZERBITZU JASOTZEKO



"Beasainen txipa aldatu du" lelopean Beasaingo Udalak herritar zerbitzuak dituen osasun-txartel elektronikoa berria aurkezten digu. Helburua zerbitzu gehiago, modu errazagoan, azkarragoan eta seguruagoan eskaintzea du txartel berri honek.

Txartel bakar batek, Eusko Jaurlaritzako zerbitzuak, udal zerbitzuak, Foru zerbitzuak eta bestelakoak eskaintzen ditu, hala nola, Osakidetza osasun-zerbitzuak eta orokorrak; udalak on-line eskaintzen dituen zerbitzuak; Kiroldegian sartzeko sistema, Foru Aldundiak on-line eskaintzen dituen zerbitzuak; gidatzeko baimenaren puntuen kontsulta, bizitza laborala...Udal bibliotekako nahiz Antzizar kiroldegiko bazkide direnek txartela zaharberritzerakoan txartel elektronikoa berria jasoko dute zuzenean.

Gainontzekoak ez zaitezte kanpoan gelditu! Orain, txartel bakarrarekin dena lor dezakezue, eta erraz gainera. Zuen txartel berria Kz Gunean eska dezakezue.

laister berri

Diseinua:
AH Diseño
Maketazioa:
AH Diseño
Erredakzioa:
AH Diseño
Publizitatea:
AH Diseño
Imprimaketa:
Gráficas
San Martín C.B.
Lege Gordailua:
SS-654/96
Erredakzioa
helbidea:
Martina
Maiz 3/2.
bulegoa
T 943 882 257
F 943 027 639
E ah@click.ah.com

Beasaingo Kultura
Batzordeak
aldizkari honen
6.500 ale banatzen
ditu hilabetero
Beasaingo
postontzietan.

Eragile a:
kultura saila



Beasaingo udala

laister berri

BOLUNTARIOEN EGUNA

Aurten seigarren aldiz, Beasaingo Udaleko Gizarte Ongizate Sailak Beasaingo VI boluntario-eguna antolatu du udalerriko hainbat elkarterekin elkarlanean. "Boluntarioen ekinga guztion onerako da" lelopean Beasaingo Udalak, Gizarte Ongizate sailaren bidez, elkarrekin buruzko informazioa zabaldu nahi du herritarren artean. Eta, bide batez, boluntarioak lortu nahi ditu elkarteetan parte hartzeko. Urriaren 6an, larunbata, bilduko dira Beasaingo elkarteak Gemika pasealekuan goizeko 10:00etatik eguerdiko 14:00etara.



NAGUSILAN: Adineko pertsonen arreta eta laguntza.

GURUTZE GORRIA: Osasun-, gizarte- eta prestakuntza-alorrak jorratzen ditu.

TXOLARTE:

Adimen-urritasuna duten 16 urtetik gorako pertsonentzako aisialdirako taldea.

MANOS UNIDAS-ESKU BATUAK: Garapen-proiektuak hirugarren munduan.

MINBIZIAREN AURKAKO ELKARTEA: Gaixoei eta familiakoei laguntza.

MUNDUAREKIN LANKIDETZA-TALDEAK:

Hirugarren munduaren egoeraren aurrean lanean.

ERRE TIRATU ETA PENTSIODUNEN ELKARTEA:

Bere bazkideei zerbitzuak eta jarduerak eskaintzen dizkie.

OSASUN-PASTORALA: Gaixorik daudenei bisitak eta laguntza.

CARITAS: Beharra duten pertsonen alde.

TXILIBUTXOF: Aisialdiko taldea, elkartasuna, laguntza..., bultzatzen dituzte.

HERRIAK ELKARLANEAN: Hirugarren munduaren alde lanean.

ODOL-EMAILAK: Beren odola ematen dute.

GOIERRIKO SAHARAREN LAGUNAK ALGAMAR ELKARTEA: Bi hilabetez Saharako haurrak harrerari hartzen dituzte.

CHERNOBILEN LAGUNAK: Bi hilabetez Chernobilerako haurrak harrerari hartzen dituzte.

laister berri

IPUIN TAILERRA UDAL BIBLIOTEKAN



Udal Bibliotekak ipuin tailerra proposatzen digu aurtengo urrian, 9 urtetik 11 urtera bitarteko umeentzat. Tailerra Udal Bibliotekan izango da eta hilaren 1ean astelehena, 17:30ean hasiko da. 90 minutuko 6 saio izango ditu tailerrak.

IZAKI FANTASTIKOEN INGURUKO IPUIN TAILERRA

Izaki Fantastikoen inguruko ipuin tailerra aurkeztzen digu Maite Franko ipuin kontalari, idazle eta pedagogoak. Tailer honetan, irakaslearen laguntzaz BESTIARIO bat osatuko dute gazteek. Bestiario honetan, kultura ezberdinetan dauden izaki fantastikoak ezagutzeaz gain, hauen inguruko kondairak entzun, irakurri eta bukeran izaki horien inguruko ipuin berriak sortu edota izaki fantastiko berriak diseinatuko dituzte.

Nork ez ditu ezagutzen izaki fantastikoak? Iratxoak, lamiak, basajaunak, herensugeak, gnomoak, trollak, banpiroak, e.a. Pertsonaia hauekin eta antzekoekin fantasiaz beteriko ikastaroa emango du Maite Frankok.



TAILERRAREN HELBURUAK

- Umeak ipuinen eduki eta egiturak aztertzeko gai izatea.
- Umeak ipuin mota hau ezagutzea.
- Umeak ipuinak sortzeko teknika ezberdinak ezagutzea.
- Umeak ipuin mota hau sortzeko eta aztertzeko gai izatea.
- Ipuinen sormenaren bitartez umeek beraien behar eta nahi psikoafektiboak asetzea.
- Ipuinen sormena eta azterketaren bitartez irakurzaletasuna bultzatzea.

ELIKADURA PORTAEREN ASALDURAK: ANOREXIA ETA BULIMIA

Beasaingo ASMUBE elkarteak elikadura portaeren asalduren inguruko hitzaldiak antolatu ditu, anorexia eta bulimia trastornoen ingurukoak hain zuzen ere. Rafael Benito medikuak, bi gaixotasunen tratamenduaz eta prebentzioaz hitz egingo du.



Hitzaldiaren helburu nagusien artean ondorengoak ditugu: elikadura asaldurak zer diren eta zein motatakoak diren argitu; nori erasaten dioten eta nolako maiztasunarekin argitu; gaur egun mota honetako asalduren zergatien inguruan ezagutzen dena alpatu; sintomak azaldu eta osasunerako suposatzen dituen arriskuak adierazi; prebentzio lana nola egin daitekeen edo gaixotasuna ahalik eta azkarren nola antzeman daitekeen erakutsi; eta tratamendu ezberdinen inguruko informazioa eman.

Bi hitzaldi izango dira, bakoitza 90 minutukoa. Lehendabizikoa Beasaingo Udaleko Udal Batzar Aretoan izango da urriaren 30ean arratsaldeko 18:30ean. "Elikadura portaeren asaldurak: nerbio anorexia eta nerbio bulimia" izenburupean hitzaldiak zer diren; zergatiak (argaltasunaren modak duen eragina, elikadura portaeren asaldurak nerabegaroko krisiaren konponbide, beste faktore batzuk); maiztasuna; noiz eta nori erasaten dioten; sintoma nagusiak; osasunarentzako arriskuak.

Bigarren zatia "Elikadura portaeren asaldurak: prebentzioa eta tratamendua" izenburua izango du eta azaroaren 6an ospatuko da. Oraiangoan elikadura portaeren asalduren prebentzioa posible den aztertuko da (nola ekidin agertzea; eskolan eta etxean goiz antzematea); elikadura portaeren asalduren tratamendu ambulatorioa (datu orokorrak, bakarkako tratamenduak, familia tratamenduak, taldeko tratamenduak); elikadura portaera arazoak dituztenen ospitaleratzea; gaixok nola eraman tratamendua jasotzera edo derrigomezko tratamendua.

laister berri

XVI. ARGAZKI RALLYA

Argizpi Argazkizale Elkarateak, Beasaingo Udaleko Kultur Batzordearekin elkarlanean XVI. Argazki Rallya ospatuko du hilaren 21ean, igandean. Izen-ematea goizeko 9:00etatik 10:00etara eta arratsaldeko 14:00etatik 14:30era egingo da Urbieta Arte Plastikotarako Zentroan. Izena emateko kuota 10 €koa izango da (barkideentzat 8,5 €koa eta gazteentzat 5 €koa).



Lanbidez argazkilariak ez diren zaletu guztiek har dezakete parte. Gainera, 16 urtera bitarteko gaztetxoentzako atal berezi bat sortu da. Rallyan diapositibek nahiz argazki digitalek parte har dezakete. Diapositiban parte hartzen duenari errebelatze gastuak barne dituen karreteia emango zaio. Gaiak izen-emate epea irekitzen denean jakinaraziko dira.

Partaideek egun berean entregatu beharko dituzte karreteiak txartelak 14:00etatik 14:30era edo 18:00etatik 18:30era. Partaide bakoitzak gai bakoitzetik diapositiba-argazki bat aukeratu behar du. Aukeraketa egiteko egunak, urriaren 29a eta 30a, astelehena eta asteartea izango dira, 19:00etan, Urbieten.

Sariak BEASAINGO BUZTINA elkartearen tailerretan egindako zeramikazko ikur eskusiboak izango dira diru-sariez gain.

Epaimahaia erakunde antolatzaileak izendatuko du eta bere erabakiak apelaezinak izango dira.

Sari-banaketa eta aukeratuak diapositiben-argazkien proiektzioa azaroaren 11an, igandea, izango da Beasaingo Udaletxean 19:00etan.

laister berri

GOIENIZ ZINE KLUBA

BUENAS NOCHES, Y
BUENA SUERTE

Urriak 4,
osteguna
Zuzendaria:
George Clooney



Edward R. Murrow AEBetan oso ezagun bilakatu zen 50eko hamarkadan, haren saioa 40 milioi lagunek jarraitzen baitzuten arreta handiz; batez ere, Joseph McCarthy senatariarekin tirabirak suertatu ondoren. Izan ere, kazetariak, ezkertiarra izanik, gogor jo zuen McCarthyk komunistei (oro har, aberriaren etsai zen edonorik) ezarritako sorgin ehiza deiturikoaren aurka, ordura arte ikusi gabeko jazarpena baitzen hura.

VERANO EN BERLIN

Urriak 18,
osteguna
Zuzendaria:
Andreas Dresen



Bi emakume gazte, lagun eta auzokide, eguneroko oztupoak ugariak izan arren, bizitzaz gozatzen saiatzen dira. Batak seme bat du eta arazoak ditu alkoholarekin; bestea gazte ausarta da, agureak zaintzen ditu eta bizitza elkarrekin pasatzeko gizon baten bila dabil. Dramatismoarik gabe, tonu arinez eta protagonistak samurki erakusten dituen Berlin ezezagun bezain hurbil baten erretratu malenkoniatsua.

BOSQUE DE SOMBRA

Urriak 25,
osteguna
Zuzendaria:
Koldo Serra



70eko hamarkada bukaera. Azken urteetako udaldirik beroenean senar-emazte bikote ingeles batek Espainiara bidaiari egin du. Beste bikote lagun batekin batera euren arazoak konpontzen saiatzeko oporaldi idilikoa zirudiena kultur ezberdintasunak eta inkomunikazio berak bultzatutako indarkeriazko zurrumbilo bilakatuko da, ezinbestean.